



Ebazpena, 2022ko urriaren 20ekoa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zuzendari beraren 2022ko otsailaren 3ko Ebazpena bigarren aldiz aldatzen duena, zeinaren bidez lehiaketa-faseko puntuazio totalak argitara eman ziren (Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen, baita espezialitate berriak eskuratzeko ere. Aginduaren 8.7 oinarrian zehaztutakoarekin bat etorriz, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez, lehiaketa-faseko puntuazio totalak argitaratu ziren.

María Iciar Larraza Anduaga andreak –Hezkuntzako Sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran izangaiak– gorako errekurtoa jarri zuen Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 14ko Ebazpenaren (EHAA, 2022-02-23koa) kontra; ebazpen horren bidez, argitara eman ziren hautatutako izangaien behin betiko zerrendak. Lehiaketa-aldian lortutako puntuazioaren aurka jarri zuen gorako errekurtoa.

Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 28ko Aginduaren bidez partzialki aintzat hartu da jarritako gorako errekurtoa, ondorengo terminoetan: María Iciar Larraza Anduaga andreari, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Euskara eta literatura espezialitatean izangaia, txanda librean, antzeman zaio 0,500 puntu deialdiaren I. Eranskineko (merezimenduen baremoa) III.2 Etengabeko prestakuntza atalean; ondorioz, lehiaketa-aldian puntuazioa igotzen du eta 4,9380 puntu lortzen ditu.

Beraz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 3ko Ebazpena; haren bidez, argitara eman ziren lehiaketa-faseko puntuazio totalak (Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan). Aldaketa ondoren aipatzen den terminoetan da:

María Iciar Larraza Anduaga andreari, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Euskara eta literatura espezialitatean izangaia, txanda librean, honako hau dagokio:

III.2 atala: 1,500 puntu

III. atala: 1,500 puntu

Lehiaketa-aldiko puntuazio totala: 4,9380 puntu

Bigarrena.– Ebazpen hau ikusgai jarriko da Hezkuntza Sailaren web orrian: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 20a
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO